


bidegileak



Pedro Pujana (1915-2001)


Egilea:

AGURTZANE ORTIZ DE LANDALUZE

Hasierako urteak

Pedro Pujana Agirregabiria Aramaio udalerrri euskalduneko Oleta herrian jaio zen 1915eko ekainaren 29an. Euskaraz izan ziren mundu honetan lehenengoz egin zituen berbak XVII. mendeko *Kortazarrena* baserrian.

Ziriako eta Alejandraren semerik gazteena izan zen Pedro. Aita kantari eta ipuinzalea izan zuen. Herriko kantak eta inguruetako erromeria ugarietako abesti asko idatziz bildu zituen Ziriako Pujanak. Ipuinak ere hainbat bildu omen zituen eta horietariko asko aita Barandiarani helarazi zizkion Pedrok berak. Oso pertsona garran-



Pedro Pujana (1915-2001)

tzitsua izan zen aita Pedroren bizitzan, berak sarritan aitortzen zuen moduan.

Ama, ordea, isila eta behargin hutsa izan zela dioskute bere senitartekoei. Izan beharko! bost seme-alaba aurrera atera ahal izateko garai latz haietan.

Euskara ikasi, luze eta zabal ikasi ere, txiki-txikitik, ume-umetan ikasi zuen, beraz. Lehenengo maisua aita izan zuen. Berau izan



Herriko hainbat kanta eta ipuin bildu zituen Ziriako Pujanak, Pedoren aitak. Eragin handia izan zuen bizitzan

zen euskaraz irakurtzen eta idazten lehenengoz ikusi zuen pertsona.

Pedro Pujanaren arabera, izan zen XIX. mendaren erdi aldera liburu bat Euskal Herriko etxe eta familietan oso irakurria izan zena. Frantzisko Lardizabal zaldibiarren *Itun Zar eta Berriko Kondaira* liburua, hain zuzen ere, oso erabilia garai hartan etxe euskaldun askotan.

Aitak Zaldibiako apaizaren liburu hura irakurri ohi zien sarri-sarri baserriko ezkaratzean. Lardizabalen liburu lodikotea, larruzko azal dotorez apaindua, eskuetan harturik irakurtzen zien sutondoko sugarren argitara, batez ere udazken edo negu aldean.



Errekaren ondo-ondoan kokatutako Kortazarrena baserrian jaio zen Pedro Pujana


Orduantxe erne eta garatu zitzaion mutiko koxkorrari golko barrenean euskararekiko atxikimendua, gero eta biziagoa garatu ere, «etxean zer ikusi, hura ikasi» esaerak dioena betez.

Etxeko bizigiroa ez ezik herrikoa ere euskararen aldekoa zen erabat haran eder hartan. Halakoren batean kanpotik etortzen ziren goardia zibilak izan ezik, ez zuen inork han gaztelaniarik egiten. Herriko eskolan, oster, ez zen hitz bat ere euskaraz ez ikasten ez egiten. Gainerako umeen modura, gaztelania huts-hutsean eskolatu zen, nahiz eta maisu euskalduna izan, Axpe-Arrazolakoa jatorriz, eta eskola orduetatik kanpo euskaraz egiten


zian. Garai hartan 60 bat neska-mutil zeuden eskolaturik Oletan.

Kristau-ikasbidea izan zen Pedro Pujanak bere bizitzan irakurri zuen lehen liburua euskaraz, eliza baitzen garai hartan euskara lantzeko ia bide bakarra.

Koskondu zenean, 14 urterekin, Gasteizko Apaizetxe Nagusira joan zen filosofia ikastera eta han izen handiko maisu batekin egin zuen topo, Manuel Lekuona jaunarekin hain zuzen ere. Maisu handi haren eraginez, lehendik piztuta zuen euskararekiko grina are gehiago biziagotu zitzaion. Manuel Lekuonaz mintzatzen zen bakoitzean oso maisu atsegina izan zela, jakituria handikoa,



Alejandra Agirregabiria maulandarra izan zen Pedroren ama. Argazkiaren beheko aldean ezkerretik hasita laugarrena



Pedro Pujana Gasteizko Apaizetxe Nagusian ikaskide askorekin batera

aipatzen zuen Pujana idazleak. Manuel Le-
kuona goraiatzen zuen beti, euskal espa-
rruan jakintsu-jakintsua izateaz gain, beti

gozo eta bigun hitz egiten ziela zioen, euska-
raren alde lan egitera eta idaztera bultzatzen
zituela.

Lehenbiziko lanak Euzkadi egunkarirako 1937an

Dena dela, handik lasterrera, zorigaiztoko Gerra Zibilaren ondorioz, euskararen aldeko berpizte eta loraldi hura errotik moztuta geratu zen. Berdin gertatu zen Gasteizko Apaizetxe Nagusian ere.

Gerra Zibilean Martiartu batailoiko kide zelarik ekin zion euskaraz idazteari Pedro Pujanak. Elgetan eta Barakaldo-Sestaoko fabrikak jagoten ziharduelarik, *Euzkadi* egunkarira bidaltzen zituen bere idazlanak. Frankistek Bilbo hartu eta bere batailoia errenditu ze-

nean, gatibuen lan batailoian jardun zuen beste askok eta askok bezala. Aragoi eta Kataluniako frentean bideak eta luebakiak egin behar izan zituen.


Gerra amaituta, etxera bidali zuten eta Gasteizko apaizetxera joan zen abadetzarako ikasketak amaitzera.

1944an 29 urte bete zituen egunean, hain zuzen ere, apaiztu zen Gasteizen. Handik hiru egunera eman zuen meza berria Oletako Sortzez Garbiaren elizan.

Eta abade gazte zela, hara non ikusten dugun Jerez de la Fronteran (Cadiz) 1944tik 1948



Lehenengo meza Oletako Sortzez Garbiaren elizan eman zuen Pedro Pujanak 1944an



Apaiztu eta berehala Jerez de la Fronteran eman zituen lau urtetan 3.000 kilometrotik gora egin zituela zaldiz aipatzen zuen Pedro Pujanak



Gogotsu ekin zion lanari
Pedrok Cadizko Jerez de la
Fronteran

urtera arte. Lau urte egin zituen han, herri-rik herri misiolari-lanetan, bertan lanean zebilen Juan Jose Agirre bere abade lehengusua gaixotu zenean ordezko lanak egiten. Gazte izanik, gogotsu ekin zion hango lanari.

Hala eta guztiz ere, hango bizimoduak ez zion ezertarako astirik ematen. Espirituzko bititza jorratu nahi zuenez, Gasteizko gotzainari elizbarrutira itzultzea eskatu zion. Euskal Herrira itzuli zenean, gotzainak Eskoriatzako parroko egin zuen. Eta bertan jardun zuen bi urtetan zehar. Honako berba

hauek erabiltzen ditu Pedrok garai hori aipatzerakoan:

Oñara joan aurretik, Gipuzkoako nahiko herri jendetsu batean bizi zen, euskara sus-traiz ikasteko egarri ase-ezina zeukala. Herri hartan, baina, ez zuen astirik, ez ezertarako bitarterik, ez libururik helburu hori egia bihur zedin. Oñara joandakoan, ostera, horra biok –astia eta liburuak– uste barik aurkitu.

Asegaitza zen, baina, gure gizona. Hainbeste zereginetik gogo-bizitzarako asti gutxi ematen ziola eta, kristau-bizitza sakonagotik bizi guran jesuita izateko bidea hartu zuen. Horrela, hiru urte Orduñan (nobiziatuan) eta beste hiru Oñan (filosofia eta teologia sakontzen) eta urtebete inguru egin zituen Salamankan.



Eskoriatzan apaiz eman zituen urteetan Goikolea familiakoekin egon zen apopilo



Harreman estua izan zuen beti Goikoleatarrekin, familiakotzat zituen. Argazkian ikus daitekeenez, ohorezko euskaltzain izendatu zutenean ere bertan izan ziren

Lehenengo hartu-emanak aditzarekin

Oñan jazo zitzaion bere bizitzan eragin handia izango zuen gertaera. Aita Altunak euskarazko eskolak ematen zizkien jesuita gipuzkoar euskaldun gazte batzuei. Salamankara linguistika ikastera joatean, irakasle barik geratu ziren. Pedrori eskatu zioten irakasle izateko. Honek ez zegoela gertatuta erantzun. Baina hark hartzeko behar zituen liburuak ondotxo jantzita zeukaten liburutegian eta prestatzeko. Apirilean hasi eta uda osoa egin zuen grama-

tika gaiak gertatzen, batez ere geroago hain gogoko izango zuen aditza aztertzen. Horrela hasi zen euskara sakonetik ikasi eta irakasten. Hainbat koaderno bete ei zituen apuntez.

Ikastetxe Nagusi hartan teologiako ikasle nagusien artean bazen talde bat –hamar/hamabi ikaslez osatua– euskara sakon samar ikasi nahi zuena, eta talde hura Pedro Pujanarengana joan zen, euskal aditza azaldu eta argitu ziezaiola eskatuz. Gipuzkerazko aditza errotik azertu eta ikasi gura zuten denek, gipuzkoarrak baitziren.



Ezkerretik hasita, Pedro Pujana, lagun bat, Engrazi arreba eta Enrike anaia zaharrena.

Josulagunen Ikastetxeko liburutegi aberats eta oparoan euskararen barrutian trebatu ahal izateko liburu egoki-egokiak aurkitu zituen oletarrak, esate baterako, Arturo Campionen *Gramática bascongada de los cuatro dialectos literarios* izeneko liburu mardula, R. M^a de Azkueren *Morfología Vasca* hiru hizkuntzatako hiztegi lodia, Luis de Eleizalderen *Conjugación Vasca Sintética*, Seber Altuberen *Erderismos* eta *Observaciones al tratado de Morfología Vasca*, ... Honako hau dio Pujanak garai horretaz:

Haxe bai izan zala poza eta gozarena gure arabarrarentzat!! Orduantxe ase ahal izan

eban aspaldi-aspaldidanik ekarren gurari bizia euskal baratzean buruz aurre sartzeko!! Nun eta Burgosen!! Holakorik!

Sei hilabetetan, egun bakoitzeko batez beste hamar ordu beste zeregin barik, euskal aditza aztertzen lan eta lan egin zuen Pedro Pujanak.

Hurrengo urte bitan jardun zuen gipuzkoar talde hari euskara irakasten, aditza eta beste.

Oñako hiru urte haietako ikaste/irakaste hark ondorio mamitsuak ekarri zituen gerora.

Ondoren egindako lanak, *Euskal aditza bizkaieraz* eta *Oletako euskal aditza* liburuak, besteak beste, ezin izango zituen ondu



Argazkian Pedro Pujana Luis Arana Martijarekin ikus dezakegu Arteagako Gautezigen

Burgosko herri hartan ikasitakoa izan ez balitz.

Oñatik Salamankara bidali zuten eta urtebete egin zuen bertan. Gero, Portugaletera eta han ere beste urtebete. Horrela jesuita izan zen zortzi urtez, 1958an berriro elizbarrutira bueltatu zen arte.

Donostiako elizbarrutira itzuli zenean, Angiozarrera bidali zuten eta bederatzi urte eman zituen Gipuzkoako herri horretan. Ondoren, Morgara joan zen Enrike anaia zaharrena gaixotu eta erretiratu zenean, eta han beste sei urte egin zituen. Handik hurbil zegoen beste herri batean egin zituen beste hamabi urte, Arteagako Gautegizen hain zuzen ere. Gogotik lan egin zuen herri haue-
tan eman zituen urteotan, aditzaren inguru-
ko liburu entzutetsuenak eta baita *Bizkaiko*

Foruaren itzulpena ere ordukoak baitira. Hirurogeita hamar urte zituela erretiroa hartu eta Begoñako abade-etxera joan zen, baina ez zion euskaraz idazteari utzi. Bizitza osoan jardun zuen euskararen alde jo eta ke lan isil etengabean. Patxi Uribarren aramaio-
ar idazle eta itzultzaileak honela deskriba-
tzen du Pedro:

Beti iruditu jat, azalekoak gora-behera, Anbotoko harkaitz gogorraren antzeko tantai zahar handi bat. Sustarrak lurrean sendo sartuta, haize eta edurrei gogor aurre egiten. Bizitza luze osoa euskerari eta eleizari eskeinuta, inoiz nekatu barik lan eta lan.

Osasunez makal samar ibili zen azken urteotan eta Begoñan hil zen 2001eko otsailaren 4an.

Izaera apal eta atseginekoa

Izaera apal eta atseginekoa zela diote familia-koek zein hurbilekoek. Itxura batean serioa zela begitandu arren, umoretsua zela aitortzen dute. Lotsakorra eta sentibera-sentibera zela dioskute, adimen handikoa eta izaera irekikoa. Harremanak zaintzen zituen pertsona zen. Andaluzian Jerez herrian egon zen garaiko jendearekin, esaterako, harreman estuak mantendu zituen bizitza osoan zehar. Eskoriatzan apopilo egon zen sasoiko Goikolea familiakoak ere etxekotzat zeuzkan. Horrezaz gain, ezin utzi aipatu gabe *Kortazarrena* baserriko bere etxekeekin hil

arte izan zuen harreman sendo ezta. Sarri idazten zizkien eskutitzak eta beti izaten zituen gogoan. Hasiera batean pertsona isila zela emanik ere, berbalduna zen etxekeekin eta hurbilekeekin batik bat. Etxekoei lehenagoko kontuak kontatzea gustatzen zitzaion.

Gorputzez handia eta iharra, beltzaran-beltzarana, oso ahots sendoa zuen, egoki-egokia indar handiko sermoiak egiteko. Izan ere, sentimendu handia jartzen zuen sermoietan. Bekain beltz handiak zituenez, beti betozkoa jarrita zuela pentsatuko zuen batek baino gehiagok, baina harengana urreratuz gero, familiakoek esan bezala, umore puntu bat



Jerezen egon zen garaiko lagunak ere ez zituen ahaztu eta beraien arteko harremana ez zen moztu



Argazkian oletar idazlea *Kortazarrena* baserriko Irati txikiarekin ikus dezakegu. Harreman estua izan zuen etxekeekin bere bizitza osoan

bazuela ohartuko zen berehala. Beti prest laguntzeko, oso ondo tratatzen zituen umeak eta edadeko jendea.

Mendiz eta basoz inguratutako herrian jaio izanik, mendia maite zuen. Horrela, aukera zuenean, mendiko botak jantzi eta pozik hartzen omen zuen mendirako bidea. Pilotan egitea ere gustatzen omen zitzaion, ez omen zen arraroa Angiozarko elizpean gazteekin eskuz jokatzen ikustea. Eskoriatzan egon zenean, palaz ere jokatzen omen zuen bertako apaizgai batzuekin.



Kortazarrena baserriko sukaldean ospakizun batean Dionisio Aranguren koinatuarekin eta Pilar, haren alaba Nekane, Kepane eta Carmen ilobekin

Fededun handia

Patxi Uribarrenek adierazitakoaren arabera, ez dugu ahaztu behar otoitz-gizona zela, Angiozarren adibidez, goiz-goizik jaikitzen zen, meza eman aurretik meditazio luzea egiteko. Aitorlekuan ere orduak egiten zituen. Arreta handiz prestatzen zituen elizkizunak eta oso maite zuen liturgia, lehenengo ostiralak, igandeko bezperak, bederatziurrenak...

Fede horren haritan eta eliz gizona zela kontuan izanik, Pedro Pujanak *Aitortu zer dela eta?* eta *Bateoa* izeneko liburuak argitaratu zituen 1972an eta 1973an.

Nekane Arana ilobak dioenez, hiltzear zegoela, «etxekeekin agurtu zenean, esan zigun inork beragatik galdetuz gero, fededun handia eta euskaltzalea zela esateko. Horiexek zirenetan bere bizitzako gauzarik garrantzitsuenak».



Pedro Pujana eta Joan Corominas izendatu zituen ohorezko euskaltzainaldi berean Euskaltzaindiak. Argazkian diploma jasotzeko antolatutako ekitaldian ezkerretik hasita, Luis Villasante, Pedro Pujana, Xabier Terrado Lleidako Unibertsitateko irakaslea Joan Corominasen ordez, azken hau gaixorik baitzegoen, Alfontso Irigoien eta Juan San Martin



Heriotzaren ostean ere gogoan izan du Pedro Pujana Aramaioko Udalak, meza bat eskaini baitzion Oletako elizan



Pedro Pujanaren esanetan, Oletako hikako aditz-jokoa berezi-berezia da euskal aditzaren barruan, Otxandio aldean baino ez da horrelakorik entzuten. Herriaren atzeko aldean ikusten den Arangioko mendi-zerrak banatzen ditu geografikoki eta linguistikoki Oleta eta Aramaioko gainerako lurak



Bilboko Liburu Azokan *Urrezko Luma* saria eman zioten egunean etxekoekin. Ilobez inguratua ikusten dugu Pedro



Euskaltzaindiak ohorezko euskaltzain izendatu zuen ekitaldian Euskaltzaindiako egoitzan. Ezkerretik hasita, Juan San Martin, Juan Mari Lekuona, Jean Haritschelhar euskaltzainburua Pedro Pujanari diploma eman ostean eskua ematen eta atzean Endrike Knörr ikus daitezke

Ohorezko euskaltzain eta ohorezko itzultzaile

Bizitza osoan zehar euskararen alde egindako lan oparoak izan zuen esker onik, batez ere azken urteetan. 1979an Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen eta ohorezko euskaltzain ondoren 1995ean. Bestalde, Itzultzaileen Elkarteak ere aintzatespena agertu nahian ohorezko itzultzaile izendatu zuen *Bizkaiko Foruak* itzultzen egindako lan esker-gatetik. Bizkaiko Foru Aldundiak, era berean, zilarrezko plaka batean esker ona eta gomuta agertu nahi izan zion arestian aipaturiko itzulpena zela eta.

Horrezaz gain, Aramaioko Udalak *Seme Kutun* izendatu zuen 1999an, udal honetan duela mende bat herri horretan bertan ospatu ziren Lore Jokoen ospakizunean. Berebiziko ilusioa egin zion sari hori jasotzeak. Bestalde, Bilboko Liburu Azokak ere omendu nahi izan zuen oletar idazle eta itzultzailea eta *Urrezko Luma* saria eman zion 2000. urtean.

Heriotzaren ostean ere gogoan izan dute Pedro. Horren lekuko dira Aramaioko Udalak Oletan eskainitako meza edota Morga eta Arteagako Udalak eskainitako omenaldiak.

Arabako euskararen leku- ko eta ikertzaile

Oleta, Arabako herri euskalduna

*P*edro Pujanak beti izan zuen gogoan jaioterria. Izan ere, gogoan izatekoa da bertako paisaje zoragarria oraindik ere asko aldatu gabea, eta Anboto eta Arangioko haitzak, harizti eta pagadi ederrak perretxikozaleen zein edozein mendizaleren gozamenerako, landa eta soro lau zabalak eta antzina-ko harrizko baserritzarrak. Araban kokatutako naturgune ikusgarri horretan euskarak jendearen ahotan bizirik dirau. Oletan ez ezik Aramaio haraneko gainerako auzoetan eta baita kalean ere. Ia biztanle guztiak sortzez euskaldunak dituen Arabako

udalerrri bakarra izatearen pribilegio triste samarra du. Hori dela eta, bertako biztanleak jakitun dira Arabako euskararen azken lekukoak direla. Arabako euskararen azken hondarra Aramaio haranean mintzatzen dena dela esan daiteke.

Horrezaz gain, nahiz eta oletarren euskalkia bizkaiera izan eta Bizkaiarekin lotura handia izan, Otxandioko azpieuskalkian mintzatzen dira hain zuzen ere, bertakoak ez dira bizkaitarrak, arabarrak eta euskaldunak baizik. Askotan argitu beharreko kontua izaten da hori.

Badu paraje honek beste ezaugarri bat Pedro Pujanak berak behin baino gehiagotan aipatzen zuena. Oleta Aramaio izan arren, askoz ere lotura handiagoa du eta izan du



Arabar idazle eta apaizak beti izan zuen gogoan jaioterria. Argazkian, Oletako plaza alde eta atzean Arangioko haitzak



Oletako antzinako harrizko baserri handi han-hemenka barreiatuetan bizirik dirau euskarak

Otxandioekin. Kontuan izan behar da, mila metrotik gorako mendizerra dagoela, Arangiokoa, Oleta eta Aramaioren artean. Oletako urak, esaterako, Ebrora doazen bitartean Aramaiokoak Deba ibaira.

Euren berbetari dagokionez, ere badago berezitasunik Aramaioko gainerako biztan-

leen eta Oletakoen artean. Hona hemen, besteak beste, zer dioen Pedro Pujanak honetaz:

Mintzairaz gagozkiola, zer esan? [...] Aramaioko izkera eta Oletakoa, biak dira bizkaiera. Bada, ala ere, nabarmen-nabarmen agertzen zaigun alderik. Fonetikan eta ikako aditz jokoetan, batez ere, bestelakoak ditugu [...] Ango mintzairak beste ots bat duke zure belarrietan, Oletakoa entzunez gero.

«Limitado»aren auzia ere ezin utzi aipatu gabe. Bost mende luze eman dituzte Aramaiokoek eta Otxandiokoek lur horien jabetza osoa eskuratu nahian eta euren artean ados jarri barik. Gainera, Pedro Pujana jaio zen etxaldeak muga egiten du limitadoko lur sailekin.

Oletako Euskal Aditza liburuan atzealdean Oletako mintzairan idatzitako pasarte batzuetan horrela azaltzen du auzia idazleak:

Au be ipuiñe ala historidxe dan etxakidhan. Baie, diñuenez, –bostehun urte baiño lenagoko kontuek dozan onek– aintxiñako denpora aretan Aramaidxoko nausidxe edo jauntxue Barajuenen bixi ei zá. Eta jaun onek bere andrie edo sasi-andrie Otzandidxokue ei dxoá. Eta bera il zanien, andra oni lur-zati aundi bat beretzat itxi ei txá Otzandidxo ondo-onduen. Eta gero, andriau il zanien, onek Otzandidxoko erridxari betiko itxi. Ortik ei dxatok «limittau» ixeneko

terrenu onen gozamina eukittie, lurra
Aramaidxokue ixen arren [...] Amaiketxu
burrukaldi ixen don aramaidxoarren eta
otzandidxoarren artien lur-zati ori dala ta
eztala. Amaitketxu bai! Aramaidxok kendu
gure, eta Otzandidxok itxi gurez. Urtietan
eta gizaldietan. Ekin eta ekin. Aramaidxok
etxok lortu, baie, Otzandidxori terrenu ori
kentzie. Alegiñak ein arren be, ezin!
Otzandidxok ogeitamaika eskutik euki,
antza. Eta ogeitamaika eskutik daukenak
dxokue irabazi eitten dxok beti [...]



Aramaiko hizkera eta Oletakoa biak bizkaiera izan arren, badute alde nabarmenik bien artean, fonetika aldetik bereziki



Pedro Pujanaren etxaldeak muga egiten du "limitado"ko lurrekin

Arabako euskararen hondarra

Euskera Araban izeneko lan interesgarria burutu zuen Pedro Pujanak 1998an. Oinarritzat Joseba Intxaustiren izenburu bereko liburua hartu zuen eta Federico Barrenengoaren *Onomástica de la Tierra de Ayala* izeneko liburuarekin eta beste lan batzuekin batera osatu.

Pedro Pujanak zergatik duen jardungai eta aztergai Arabako euskara azaltzen du bere lanean. «Arabak bere lurraldean, betidanik, bizirik izan du euskara» eta gainera, euskararen esparruan gorabehera eta joan-etorri handiko jazoerak izan dira bertan. Horregatik edozein euskaltzalerentzat gogoz eta arretaz ikastekoa eta jakitekoa izan beharko luke, bere ustez, gure hizkuntzan Arabak izan duen garrantzia.

Erromatarren garaitik Araban, euskara eta latina, biak batera, gizaldietan bizi izan ziren elkarren ondoan, auzokide eta lehiakide, bata bestearekin nahasturik, latinetik euskarara hitz piloa aldaturik, Pujanaren hitzetan.

Erdi Aroan, ordea, gertaera harrigarri bat izan zen, bere iritzian, orain arte inork ere ez duena erabat argitu. Izan ere, arabarrek eskuhartze zuzena izan zuten garai hartako euskararen zabalkundean, jendez zein euskalkiz. Horrela, Burgos zein Errioxa Garaiko lurretan Arabako euskara hedatu zen batik bat. Intxaustik ere gauza bera dio bere lanean.

Dena dela, hasieran aurrera egin bazuen ere, laster hasi zen atzeraka gure hizkuntza eta Erdi Aroaren amaiera alderako ez zegoen euskaldunik ez Ebro hegoaldean, ez Arabako Erriberetan, ezta mendebaldean ere. Muga Lizarratik Trebiñora zihoan mendizerrak egiten zuten.

XIX. gizaldira arte euskarak ez zuen galera handirik izan. Esate baterako, Gasteiz inguruko herri eta auzo guztiak XVIII. mendean oraindik euskaldunak ziren. Gerora gertatu zen euskararen atzera egitea Araban, XIX. mendean hain zuzen ere. Hiru arrazoi nagusi aipatzen dira euskararen galera azaltzerakoan. Lehenik eta behin, abadeen ardurabakokeria, eragin handia izan omen zuten-eta Lautadako herritxoetan euskararen galeran. Bigarrenik, Arabaren geografia irekia eta Gaztelarekin zituen harreman estuak. Hirugarrenik, garaiko eskolak euskararekiko izan zuten pedagogia arbuigarria.

Joan den mendean lurraldez atzeraka egin arren, gaur egun goraka ari da egiten kopuruz nabarmen. Horrela, arestian aipatu den bezala, Aramaio da une honetan euskalduna den Arabako udalerrri bakarra, baina gainerako herrietan eta Gasteizen bertan euskaldunen zenbatekoa dezente igo da. Adibidez, 1981ean biztanleriaren %3,88 baino ez zen euskalduna Araban. Guztira 9.693 euskaldun zituen. 1996an, aldiz, %14,5era igo zen zenbatekoa. Hamabost urte horietan ia 30.000 euskaldun irabazi ditu Arabak, hau da, euskal-

dunen multzoa hirukoiztu egin da. Noizbait zazpigarren alaba izateari utziko al dio!

Etorkizunari begira, itxaropentsu agertzen dira Pujana zein Intxausti.

III. milakadaren atarian eta Europara goazen honetan, hizkuntzaren altxor zaharra aspal-didanik baino biziago du bere baitan Arabak, eta ez iparraldeko mendialdeetan bakarrik,

baita Lautadan eta Errioxan ere, herrixketan bezala hiriburuetan ere. Arabaren moder-notasunean txertaturik dago, dagoeneko, bertoko euskara, eta herritar gehienen borondatearen gain eraiki ahal izango da espero den etorkizun hobea. Landazuri historialari handiaren ametsak egia bihur litezke bi mende geroago.



Gasteiz inguruko herri eta auzo guztiak oraindik euskaldunak ziren XVIII. mendearen amaieran. D. L. Prestamerok 1787an argitaratutako *Alava por Vicarias* lanari esker, oraindik euskaldunak ziren lurraldeak argi eta garbi ikus daitezke. Oso ondo ikusten da garai horretako hizkuntzaren arabarako banaketa

Aldizkari askotan idatzitako artikuluak

Pedro Pujanaren lehen idazlanak gerra garaikoak dira. Elgetako Intxorta gudalekutik 1937an Bilboko *Euzkadi* egunkarian argitaratutakoak. Gazte-gaztetatik izan zuen idazteko zaletasuna.

Geldiune luze bat izan ondoren, gogoran izan behar dugu gerra ostea garai latza izan zela euskalgintzarako, 1958tik hasita 1967ra arte hainbat artikululu idatzi zituen *Zeruko Argia* aldizkarian. Ordutik aurrera aldizkari askotan idatzi izan du, batez ere, *Agur*, *Karmel*, *Zer* eta *Euskerazaintza* aldizkarietan.



Une honetan Aramaio da biztanleen artean euskaldunek gehiengoa osatzen duten Arabako udalerririk bakarra


Aditzari buruzko argitalpenak

Aditzari eskainitako lehen liburua 1970ean argitaratu zuen Oletako idazleak. *Euskal Aditza Bizkaieraz / Flexiones del verbo vizcaino* liburuan agertzen da lehen aldiz euskal aditz osoari ezarritako Nor-Nori-Nork paradigma. Oso baliagarria suertatu zen aditza irakasteko. Aita Isidro Baztarrika Estibalizko beneditarraren *Aditza* izeneko liburuan oina-

rritu zen. Liburu honek bigarren argitalpen bat ere izan zuen.

Dena dela, berak maiteen izan zuen liburua *Oletako Euskal Aditza* deritzona da. 1979an argitaratu zuen Arabako Foru Aldundiaren eskutik. Bertan, Arabako gorengo muturrean, Oletan, mendetan erabili izan den aditzaren berri –zuka eta hika– ematen du.

Pujanak dioenez, Aramaioko auzo horretan erabili ohi den hikako aditz-jokoa berezi-berezia da euskal aditzaren barruan, beste inon ere entzuten ez den bezalako, Otxandio inguruan izan ezik. Aramaioko ez Ibarra ez beste gainerako auzoetan ezta



Oletako Euskal Aditza liburua 1979an argitaratua, idazlearen lanik gogokoena da

Leintzen ere ez da horrelako formarik erabiltzen. Azkuek berak ere aipatzen du berezitasun hori. Hiru dira Oletako hikak dituen desberdintasun aipagarriak. Lehen aldiari dagokion «-n» ezaugarria galdu egiten da, herri honetako hikako aditz-joko guztietan. Horrezaz gain, lehen aldiko jokoetan ez da aldatzen gizonezko/emakumezko adizkia, Euskal Herriko toki gehientsuenetan bezala. Bestalde, azentuari dagokion berezitasuna ere nabarmentzekoa da, esate baterako, «nitzá» esaten da eta ez «nizta».

Endrike Knörr euskaltzainak liburuaren hitzaurrean dio egileak lan honen berri eman zionean, argitaratzeko bidea prestatu behar zitzaiola pentsatu zuela, «lana bikaina baitzen». Alfontso Irigoienek ere zuzenketa eta ohar batzuk egin zizkion liburua argitaratu aurretik.


Aramaioko elizate honetan bizirik den hikako jokabideari buruzko lan bat argitaratu zuen 1977an, liburua kaleratu aurretik, eta Leintz haranean, Angiozarren, Zeanurin eta Mungialdean erabiltzen zirenak ere sartu zituen, euren arteko alderaketak egin ahal izateko. Hain zuzen ere, bere maisu izan zen Manuel Lekuonaren omenez argitaratutako Kardaberaz bilduman ikusi zuen argia handik bi urtera kaleratutako liburuaren aurrekari izan zen lan honek.

Bizkaiko Forua euskaraz

Itzulpenen arloan, beste hainbat lanen artean, Pedro Pujanaren itzulpenik aipagarriena *Bizkaiko Forua* (Bizkaiko Foru Berria) dugu. Bizkaiko Forua 1526an idatzi bazen ere, 1981 arte ez zen euskaratua izan. Pedro Pujanak lan eskerga egin zuen berau bizkaierara itzultzen. Jose Estornes Lasa erronkariarrak egin zuen Foru-interpretatzaile lana. Horrelaxe azaltzen du Pedro Pujanak umoretsu bati baino gehiagori bitxia egin dakiokeen lankidetzaz emankor hori:

Gauza bitxia, gero, hau ere! Bizkaiko Forua izan, eta lehenengo bidar, nafar jakintsu bat argi-emoile izanik, arabar batek euskeratu izana!

Gaztelaniatzko jatorrizko bertsioa ezkerreko orrialdean eta euskarazkoa eskuinekoan ezarririk, mila ale zenbaturen argitalpen berezi bat egin zuen Bizkaiko Foru Aldundiak. Bestalde, XVI. mendeko Bizkaiko Forua bizkaieraz jartzeaz gain, Gernikako Batzar Nagusiko areto nagusian dauden esaldiak berak euskaratutakoak dira.



Bizkaiko Forua itzuli zuen Pedro Pujanak. Argitalpen dotorean gaztelaniatzko jatorrizko bertsioa irakur daiteke ezkerreko orrialdean eta euskarazkoa eskuinekoan

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- Pujana familia

LABAYRU-IKASTEGIA BIBLIOTEKA - DEJO
Sarr. <i>35.200.000</i>
Gaia.
Tokia.

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2002ko abendua

Ale-kopurua: 2.500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Joseba Olalde

Fotokonposizioa: E.P.S., S.L.
Herminio Madinabeitia, 18 - Pab. 3 - 01006 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.
Bekolarra, 4 - 01010 Vitoria-Gasteiz

ISBN: 84-457-1871-1 (Lan osoarena)
84-457-1872-X

L.G.: VI-559/02



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística